

## **Hirugarren pausoa**

*El Mundo del País Vasco, 1992-12-*

Hirugarren urte hau gogorra izango da *Euskaldunon Egunkaria* sentitzen garen denontzat.

Ekonomia aldetik halaxe dago iragana. Batez ere mozkin gutxien duguentzat, beti gertatzen den moduan. Hala ere, orain arte lortu duguna kontutan hartuz: euskaraz agrafoa izan den herri honetan, egunero ia 40.000 euskaldun euskaraz irakurtzen jartzea lortu duen medio bat gara, eta hau ez da karga bat balitzan bideko bazter batetan botatzekoa! Bestetik, euskara herrialdez herrialde euskalkietan zatituta iritxi zaigunez, normala den bezala, eta orain euskara idatziaren zabalkundea martxa bizian dagoenean (eta asko eta asko euskaldun berriak) ezin dugu euskarak duen komunikabide idatzietatik nagusienaren lokarria ebaki; hilketa bat izango litzateke, batez ere kopuru hau laster bikoiztea amesten dugun honetan.

### **Laguntzak**

Honetarako, noski, orriak orain gehitu behar ditugu, berriemaileak herri guztietan jarri; hau lortzen ez dugun bitartean ezin dugu geure herriko egunkaririk onena, sakonena eta zabalena egiten ahalegintzeko modurik izango.

Nork lagundu behar duen?, egiteko ahalmena duen bakoitzak daki; gure esperientzian, orain arte lortzen joan garen berak behar ditugu, preziatuak dira: baina justiziazko beste biderik ireki gabe zail egingo zaigu lortu behar dugun etorkizun euskaldun hau eraikitzea.